



• • • • • Arabako Biltzar Nagusiak

Niztegia

Ernesto Pastor Díaz de Garayo

ACOPIAMIENTO edo HORNIKETA

Biztanle-lerrokada, eremu baten biztanle kopurua jakiteko -esate baterako ermandadeak- eta horren bidez sor liratekeen karga/gastu ezberdinen banaketa-irizpideak ezartzeko.

ALCABALA edo ZERGA

Zerga zuzena, ondasun higigarri eta higiezin salmenta, besterentze eta trukeen gainean: esandako ondasunen balioari buruzko hogeitik bat zergapetua zegoen. Hau da, %5, nahiz eta batzutan zerga honen zenbatekoa %10 izan; azken kuota hau aro modernoan finkatu zen. "Alcalaba" zerga hori Enrique II.aren erregegoan (1369- 1379) eta Juan I.aren (1379-1390) zerga iraunkor bezala indartu zen, eta XV mendean errege Ogasunaren balia bide arrunta zen jadanik.

ARIELA

Hiritarrek ordaindu behar zuten zerga edo eta ordainketa, gastu publikoei aurre egiteko beharrezkoak ziren balia bideak eskuratzeko.

BASTIMENTO

Homiketa, elikadura.

COLLAZO edo NEKAZARI-MORROIA

Karga edo zerga multzoaren menpeko nekazaria, beste baten lurralde-jabegoan bizi eta haren lurra lantzeagatik sortua.

CONTINO edo ERREGE-ZAINA

Kontzeptu honen bidez izendatzen da, alde batetik, jaunak laguntzen eta mantentzen zuen gizona, honen eginbeharrak jaunaren aldeko zerbitzu eta eskolta egitea izanik, eta behar izango balitz mendekua ere. Eta beste aldetik, «ehun continuoen» gorputza osatzen zuten pertsonak, erregearen egoitzan lan egiten zutenak erregea eta haren jauregia zaintzeko.

KOADRILA

Zergetarako eta Ermandadearen karguak hautatzeko garaian, probintziako lurraldean ziren mugapen administratiboak. Koadrila bakoitzak «leku-ermandade» kopuru heterogeneoa biltzen zuen, batzutan inolako kidetasunik izan gabe haien artean. «Leku-ermandade» hauek, beren aldetik, entitate txikiagoak barnebiltzen zituzten, adibidez honako unitate administratibo hauek: hiribildu, herrixka eta lekuak.

DERRAMAS edo ZERGA BEREZIAK

Zerga bilketa egiteko sistema, eskatutako kopurua herrien artean banaketa eginez, Horretarako, herri bakoitzarentzat zenbateko zehatz bat ezartzen zen, eta horren ordainketa zerga-beharra zuten auzotarren artean berdin banatzen zuten.

ENCANTARAR edo ATABAKARATU

Ontzi baten barruan zozketa, botazio edo hautaketa baten bolak, txartelak, etab. sartzea. Eta hortik, beste edozein ontzitan gauza berbera egitea.

EXEQUATUR

«Exequatur» latinezko hitzetik -subjuntibo zoko orainaldiaren «exsequor» aditzetik- datorren adierazpena; «egin dadila» esan nahi du.

ERMANDADEA

Zenbait udalerriren batasunaz eratutako taldea, ordena publikoa mantentzeko eta aspalditik errotutako bandidaia eta boteretsuen gehiegikeriak gainditzeko asmoz. Erdi Aroan, jaunen kontrako borroka egiteko eragin handiko tresnetako bat zen.

HANDIKIA

Bigarren mailako noblei emandako izena Erdi Aroan. «Infanzones» edo etxe-emeen pribilegiozko estatuko juridikoa zeukaten. Hiribildu eta hirien gizon askok eskuratu zuten leinuzko noblezia, bai ondasundunak izateagatik, bai gerran zaldiz egindako ekintzengatik, edo errege-emakidaren bidez. Horrela, XIV mendean, bi handiki-mota bereizten ziren: erregearen jaugoarenak, erregearen aginte zuzenaren menpean zeudenak, eta hiri-kontzejuenak, zuzenbide lokalaren menpekoak eta udal-gobernuaren partaideak.

INFANZONES edo ETXEKO SEMEAK

«Gizon aberatsak» ez bezala, ez dira zerbitzuko noblezia, leinuzkoa eta armazkoa baizik, eta haien pribilegioak odolean eta zaldizko gudari izieran oinarritzen dira.

EPAILE EGITERATZAILE

1476an Gaztela erresumaren Ermandade Orokorra eratzean sortutako magistratura, zeini Probintziako lurralde osoaren gobernu eta ikuskaritza baitzegozkion. Arabaren kasua Epaille Egiteratzailea Diputatu Nagusi bezala agertu zen hasiera-hasieratik.

JUSTIZIA

Biztanleria eta lurralde jakin baten gainean eskumena zeukan ofizial publikoa, justiziaren administrazioaz arduratzen zen bere buruz epaille arrunta gisa. Kargu hau erregeak aukera zitekeen edota zegokion kontzejuek ere.

LEVAS edo BILKETAK

Jende-bilketa Estatuaren zerbitzurako, soldadutzarako batik bat.

MALFETRIA edo GEHIEGIKERIA

Noblezia feudalak egindako delitua edo gehiegikeria.

MUGA

Zedarrizapen militarra lurralde mugak finkatzeko.

MERINALDEAK

Zabalera aldakorreko lurralde mugapenak -merinalde nagusiak eta txikiak izan daitezke-. Gaztela edo Nafarroako erresumak gobernatzeko edo administratzeko lurralde-banaketak ditugu hauek. Beste zenbait

mugapen txikiago barnebiltzen zituzten, «ohoreak», «edukitzeak» eta «udalerrriak» adibidez. Merinalde hauen buru MERINOAK ziren, ofizial publikoak zirenak, zeinei funtzio gobernatzailerik, ekonomiko, finantzario eta judiziala ematen zitzaizkien.

PROBINTZIAREN AITAK

Diputatu Nagusiaren karguan izandakoek osaturiko pertsona-taldea.

HIRI-HANDIKIGOA

Hitz honekin hirietan normalean udal-gobernua kontrolatzen zuten burges aberatsenak izendatzen zuten. Leonen eta Gaztelan «zaldun hiritarrek» osatzen zuten talde hori.

PECHERO edo ZERGAPEKOÁ

Hitz honekin, egoera soziala eta ekonomikoaren arabera erregeari, lurraldeko administrazioko ofizialei eta aginterriaren jaunei zergak ordaindu edota prestazioak eman behar zizkieten pertsonak izendatzen ditugu.

PECHO FORERO edo FORU-ZERGA

Nekazariak ordaindu beharreko zerga eta karga multzoa, jaun baten lurraldean bizi eta lan egiteagatik. Esandako zentsuaren onuraduna kolonoak landutako finken jabea zen. Beste batzutan, jaun-loturatik etortzen ziren errentak, lurjabeek «jaunaren» boterearen menpean jartzen baitzituzten lurralde horien biztanleak. Arriagako Kofradiaren kasu berezian, Arabako nekazari-morroiek eta nekazariak, Kofradiak hautaturiko jaunari zentsua «pecho forero» edo foru-zerga deiturikoa ordaintzen zioten, eskualdeko foruaren arabera ezarria.

PECHOS REALES edo ERREGE-ZERGA

Erregeari zor zizkieten prestazioak eta kargak, errege-jabegoko edo «errealengo» lurraldeetako biztanleek bete beharrekoak.

ERREALENGOA

Erregeari dagokiona da. Baina normalean erregearen lurralde-jabegoarekin lotuta agertzen da; erregearen agintearen menpe dago eta bere ofizialek eta agenteek administratzen dute.

ARIELEN ERREMATATZAILA

Zerga-bilketat arduratzen den pertsona, enkante bidez aukeratua.

BANAKETA

Zergak biltzeko sistema, bildu nahi zen kantitatea eta ordaintzaile kopuruaren arteko egokitzean zetzan.

SEMOIOA ETA MARTXOKO IDIA

Nekazariak Arriagako Kofradiaren jaunari eman beharreko «pecho forero» edo foruzerga semoioa eta martxoko idia ziren. Semoioa, edo moi erdia edo moioa, tributuzko unitate bakoitzak, zerga-etxe bakoitzak,

ordaindu beharreko ale-neurria da. Martxoko idia beste zerga bat da, baina honen esanahia eta zenbatekoa zehaztea zaila da, datu gutxi baitugu.

JAURGOA/JAURERRIA

Hitz hauek, jaun/jabe batek bere menpeko gizakien lanaren irabaziez jabetzeko erabiltzen zituen baliabide guztiak biltzen dituzte. Baliabide hauek jatorri askotakoak dira, batzutan lurraren jabetzetik datoz, beste batzutan behartzeko botere baten erabileratik. Bereizketa bikoitz honetatik sortzen da, era berean, jaurgoaren izaera bikoitza: lurraldekoa eta jurisdikziokoa.

ZIZA

Kontsumoaren gainean jarritako zerga, zenbait produktu (haragia, ogia, ardoa, irina, e.a.) zergapetzen zituena, saltzaileek salmentetan erabiltzen zituzten pisu eta neurrietan fiskoaren aldeko murriztea eginez. Era honetan kontsumitzaileak produktuaren kantitate txikiagoa hartzen zuen ezarritako prezioa baino, aldea fiskoarentzat izanik; Ziza, prezioaren gaineko errekaru bihur zedila sortarazi zuen honek.

TENENCIAS edo EDUKITZEAK

Agintari publikoak, Erregeak, leinuzko noblezi zuten pertsonen «TENIENTES» deiturikoei emandako lurralde, mugape, hirigune edo gotorleku, haien esku administrazio barrutian agintzeko gobernatzeko eta administratzeko funtzio publikoa zegoelarik. Barruti hauek, era berean, «Ohoreak» deitzen dira.

TIERRAS ESPARSAS edo LURRALDE JAREAK

Araba lurraldeari aplikaturik, lehen aldi batean -XVI. mendean- Erdi Aroan Gasteiz eta Arabako beste hogeitahiribilduen jurisdikziotik kanpoko «Leku-ermandade» taldea zen. Geroago -XVIII. mendean «lurralde jareak» izenekoak ez dira kontrajartzen harresiz inguratuko hiribildu zaharrei, baizik Ermandadeari eta Gasteizeko koadrilari soilik.

HIRIBILDUAK

«Hiritasun» pribilegioa, erregeak leku bati emandako foru-emakida da. Emakida honek garrantzi handiko aldaketa politiko-administratiboa ekartzen zuen. Forua jasotzen zuten herri-gunearen biztanleek zuzenbidezko estatuko berezia lortzen zuten, eta errege-ofizialek eratu gabeko hiribilduetako eskualdeetan zituzten hainbeste kompetentzia judizial eta administratiboak eskuratzen zituzten.